



JENDAURREKO TRAMITEAN IZANDAKO PARTE-HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA

Xedea: Jendaurrean ikusgai jarritako fasean Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua Foru Legearen aurreproiektuari aurkeztutako alegazioei buruzko txostena.

I. AURREKARIAK

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektorre Publiko Instituzionalari buruzko 11/2019 Foru Legearen (aurrerantzean NFKAFL) 133. artikuluan ezarritakoa betetzeko, apirilaren 9an Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua Foru Legearen aurreproiektu horri dagokion jendaurreko izapidea argitaratu zen Nafarroako Gobernuaren web atariko Gobernu Irekia atalean, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketan ekarpen osagarri guztiak jaso ahal izateko.

2021eko maiatzaren 30ean amaitu zen jendaurreko izapidea, eta lau erakunderen alegazioak jaso ziren.

Txosten honen egitura aurreproiektuaren artikuluen arabera antolatu da, aurkeztutako alegazioei dagokienez, eta, gainerako alegazioen kasuan, gaiak arauaren testuan duen kokapen sistematikoaren eta proposatutako artikuluen berrien zenbakiaren arabera ordenatu dira.

II. ALEGAZIOEN AZTERKETA

A) ALEGAZIO OROKORRAK.

1. Lankidetzaren hitzarmenak

Alegazioa:

Eskatzen da foru lege berriak administrazio publikoen eta kontsumoaren arloko erakunde pribatuen arteko kooperazioa eta elkarlana jasotzeko.

Erantzuna:

Foru Administrazioari dagokionez, gai hori NFKAFLren V. tituluaren I. eta II. kapituluetan dago araututa, eta, arautze horren esparruan elkarlanerako edo lankidetzarako beste hitzarmen edo mekanismoak sartzen dira, eta ez da behar legean berariaz aipatzea.



2. Informaziorako eskubidea

Alegazioa:

Proposatzen da gai sektorialeiei (etxebizitza, finantza entitateak, kredituak, hipoteka maileguak) edo informazioari buruzko manuak biltzeko eta foru legean sartzea.

Erantzuna:

Kontsumitzailearen babesak ondasun eta zerbitzuei (etxebizitza, telekomunikazioak, elikadura, industriako produktuak, zerbitzuak, etc.) lotutako gai ugari hartzen ditu bere barnean. Oraingoa bezalako lege batek ezin ditu arautu Estatuko edo Europako arau arruntetan araututa dauden gai sektorialak.

Autonomia erkidegoetako kontsumitzaileak babesteko zenbait legeren artikulua aipatzen dira, kredituak lagatzeari buruzkoak. Gaur egun, Nafarroan, alderdi hori Foru Berriaren 511 Legean arautzen da, eta, apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legean eman zitzaion azken idazkera dela eta, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa jarri da Konstituzio Auzitegian. Ebazpenaren zain dago.

3. Prestakuntza eta hezkuntzarako eskubidea.

Alegazioa:

Aurreproiektuan, informazioa eta hezkuntza Administrazioaren esku uzten dira modu eskusiboan, eta ez dago elkarteei eta elkartegintza kontsumitzaileen eskubideak defendatzeko bitarteko eraginkor gisa sustatzeari buruzko aipamenik. Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Babesteari buruzko ekainaren 20ko 7/2006 Legearen (aurrerantzean, KEBFL) oraingo 18. eta 19. artikuluen idazkerari eustea proposatzen da.

Erantzuna:

Kontsumoari buruzko informazioa eta hezkuntza arlo horretan eskumena duten botere publikoen ardura da, elkarrekin berezkoak zaizkien eginkizunak betetzean egiten duten lana baztertu gabe, eta, indarrean dagoen legerian ezarritako bideak baliatuta, botere publikoen eta elkarteen artean arlo honetan lankidetzaz izateko aukera baztertu gabe, baina ez da beharrezkoa alderdi hori foru legearen testuan esplizitatzea.

4. 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazio osagarria

Alegazioa:

Xedapen gehigarri batean Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bategina onesten duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua (aurrerantzean, KEDLOTB) eta hura ordeztzen, osatzen eta garatzen duen araudia osagarriak direla aipatzeko eskatzen da.

Erantzuna:



Alegazio hau ezin da onartu Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia dela eta. Ildo horretan, Konstituzio Auzitegiaren irailaren 21eko 157/2004 Epaiaren bidez, Merkataritza arautzen duen 17/2001 Foru Legearen 50.2 artikulua eta azken xedapenetako bigarrena baliogabetu ziren. Izan ere, aipatutako manuetan ezartzen zen foru legean aurreikusten ez ziren alderdietan urtarrilaren 7/1996 Legea osagarria zela. Konstituzio Auzitegiaren epai horretan esaten zen Estatuko zuzenbidearen izaera osagarria Espainiako Konstituzioaren 149.3 artikulua aginduta ezartzen dela eta lege autonomikoetan ezin zela alderdi hori azpimarratu:

«Azken finean, Espainiako Konstituzioaren 149.3 artikuluan ezarritako Estatuaren zuzenbidearen ordezkotza izatearen "xedeak da gure estatu autonomikoaren sistema arauemailean hutsuneak saihestea" [62/1990 KAE, FJ 10 a)], eta, hala, ordenamendu ezberdinak integratzen ahal dira, zuzenbidea aplikatzen duenak egon daitezkeen hutsuneak betetzeko aukera izan dezan, eta legegile autonomikoek ezin dute ordenamendu horien integrazioan eragin, estatuaren zuzenbidearen aplikazioaren irismena edo mugak zehaztuta».

Hori dela eta ezin da sartu testu bateginaren eta testu hori garatzen edo osatzen duen Estatuko araudiaren aplikazio osagarriari buruzko aipamenik. Hala ere, ez aipatzeak ez du eragozten Estatuaren arauak osagarri gisa aplikatzea, Konstituzioak berak (149.3 artikulua) eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren (aurrerantzean, NFEBHLO) 40.3 artikulua ezarritakoaren arabera.

B) ARTIKULUEI BURUZKO ALEGAZIOAK

1. artikulua Xedea eta aplikazio eremua.

Alegazioa:

Lehia askeari buruzko aipamena kentzea proposatzen da, beste arau batzuetan baitago araututa, besteak beste Lehia Defendatzeko Legean eta Lehia Desleialaren Legean, kontsumitzaileen interes legitimo ekonomikoari eragin diezaieketen merkataritza jardunbideak gorabehera.

Erantzuna:

Onartu egin da alegazioa, Estatuaren eskumeneko gai bat delako, eta, ordena sistematikoa aintzat hartuta, 2. apartatuaren gainerako zatia, arauaren aplikazio eremu objektiboari buruzkoa (kontsumo harremanak), aplikazio eremutik kanpo dauden alderdiak aipatzen dituen 3. apartatuarekin batuko da, eta 4. apartatua 3. apartatua izanen da.



2. artikulua Zehaztapen terminologikoak.

Alegazioa:

Interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak terminoaren ordeztan, erabilera arrunt, ohiko eta orokorreko ondasunak terminoa jartzeko eskatzen da. Azken hauek ez dira agertzen Estatutuan eta sartu egin beharko lirateke. KEBFLn, babes berezia behar duten ondasun gisa agertzen dira.

Erantzuna:

Interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak eta erabilera arrunt, ohiko eta orokorreko ondasunak kontzeptuak ezberdinak dira, eta bata ez du bestea ordeztatzen. Lehenengo definizioa aurreproiektuaren 2.i) artikuluan dago, eta bigarrenak irailaren 1eko 1507/2000 Errege Dekretuan eta KEDLOTBen 9. artikuluan daude araututa.

Erabilera arrunt, ohiko edo orokorreko ondasunen aipamena hurrengo artikuluan sartzen ahal da babes berezia behar duten kasuen arautzean, hirugarren apartatu bat erantsita.

3. artikulua Babes bereziko kasuak.

Alegazioa:

1.500 biztanle baino gutxiagoko toki erakunde txikietan bizi diren pertsonak zaugarritzat jotzeko eskatzen da.

Erantzuna:

Aurreproiektuaren testuan jasotako kontsumitzaile zaugarrien zerrenda nahiko luzea da jada, eta ez da itxia, gutxiagotasun, menpekotasun, zaugarritasun egoeran dauden edo babesgabetasun handiagoa duten kolektibo guztiak sartzeko aukera ematen duen aipamen batekin amaitzen baita.

Lehenago adierazitakoarekin bat, egokitzen jo da artikulua honetan hirugarren apartatu bat gehitzea, babes bereziko kasuen artean erabilera arrunt, ohiko eta orokorreko produktu edo zerbitzuekin lotura zuzena duten kontsumitzaileen eskubideak sartzeko, KEBFLren oraingo 3.2 artikulua idatzera aintzat hartuta.

Bai, gehitzen ahal da artikulua honetan aurreko alegazioa erabilera arrunt, ohiko eta orokorreko ondasunei dagokienez esandakoa, KEBFLren oraingo 3.2 artikulua testuarekin.



4. artikulua (BERRIA): Nafarroako administrazio publikoen eskumenak.

Alegazioa:

Proposatzen da artikulua honetan Nafarroako administrazio publikoen eskumenak jasotzea, honela banatuta:

Nafarroako Gobernua: Nafarroako Foru Komunitatean kontsumoaren arloko politikaren planifikazio orokorra, jardun bateraturako programak garatzeko eta sustatzeko erregelamenduak eta toki erakundeekin koordinatzeko mekanismoak.

Toki erakundeak: indarrean dagoen legeriak ematen dizkien eskumenak eta, betiere, hauek: kontsumitzaileen eta erabiltzaileen informazioa eta hezkuntza lantzea, kontsumitzaileei informazioa emateko bulegoak eta zerbitzuak ezartzea, kontsumitzaileen elkarrekin lankidetzak hitzarmenak egitea, herritarrek kontsumoaren arloan parte hartzeko organoak sustatzea.

Nafarroako Gobernuak hitzarmenak sustatuko ditu toki erakundeekin kontsumitzaileei informazioa emateko udal bulegoak finantzatzeko eta administrazio publikoen eta kontsumoaren arloan eskumena duten organismoen artean koordinaziorako eta lankidetzarako neurriak hartzeko.

Gai honi dagokionez, erakunde berak aurkeztutako beste alegazio bat dago, non adierazten baita aurreproiektuan ez direla jasotzen kontsumitzaileei informazioa emateko udal bulegoak.

Erantzuna:

Administrazio Lokalari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak (aurrerantzean, ALFL) jasotzen du eskualdeek eskumen hauek bereganatzen ahal dituztela kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesaren arloan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikuluko 3., 4., eta 5. apartatueta ezarritakoari lotuz:

- Tokiko zerbitzuak ezartzea komeni den aztertzea, deszentralizazioaren, efizientziaren, egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren printzipioekin bat.
- Ukitutako administrazio publikoen finantza baliabideen gaineko eragina eta zerbitzuaren edo jardueraren egonkortasunaren, finantza iraunkortasunaren eta efizientziaren printzipioak betetzea islatzen duen memoria ekonomikoa. Ildo horretan, legeak aurrez ikusi behar du toki erakundeen finantza nahikotasuna bermatzeko baliabideen dotazioa, betiere administrazio publikoen gastua handitu gabe.
- Eskumen zehatz hori udalaren berezko eskumen gisa jasotzea, eta eskumen bera aldi berean beste administrazio publiko bati ez zaiola ematen bermatzea.



Foru Komunitatean toki erakundeek duten sakabanaketa geografikoa eta atomizazioa aintzat hartuta (272 udalerrri), eta haietako asko oso txikiak direla kontuan hartuta, departamentu honek uste du, kontsumoari buruzko eskumenak tokiko eremuari emateko, eskualde mailan eman behar direla, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25. artikuluan ezarritako eskakizunak beteta.

Ilido horretan, gaur egun eskualdeak foru lege baten bidez sortzea agenda politikoan bete gabe dagoen gai bat denez, departamentu honek uste du ez dela une egokia arau honetan eskumenak esleitzeko. Eskualdeak sortzeko legeen bidez esleitu beharko litzaizkieke eskualdeei kontsumoaren arloan egokitzat jotzen diren eskumen zehatzak, eta eskumen horien egikaritzea nola finantzatuko den zehaztu beharko da.

Nafarroaren kasuan, gure lurraldean dauden toki erakundeen atomizazioa dela eta, udalerriei kontsumoaren arloko eskumenak esleitzea abenduaren 27ko 27/2013 Legeak sartutako toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun irizpideen kontrakoa dela uste dugu (geroago, irizpide horiek ALFLn sartu ziren abenduaren 2ko 23/2014 Foru Legearen bidez).

5. artikulua Kontsumoaren Plan Estrategikoa

Alegazioak:

1. Beste testu bat proposatzen da artikulua honetarako. Testu horretan interes taldeek eta kontsumitzaileen erakundeek Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluan Kontsumoaren Plan Estrategikoa egiteko eta onartzeko prozesuan parte hartzea jasotzen da.

Ordezko testu horretan, Kontsumoaren Plan Estrategikoaren ebaluazioa egiteko arautze zehatzagoa ezartzen da.

2. Proposatutako testuak Plan Estrategikoarekin zerikusirik ez duen gai bat jorratzen du: kontsumo harremanei eragiten dizkieten erabakiak hartzen dituzten erakunde publikoetan, organismo aholku-emaitzetan eta kontseiluetan, kontsumitzaileen partaidetza sustatzea, elkarrean bidez.

Erantzuna:

1. Onartu egin da proposamena, Kontsumoaren Plan Estrategikoa Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluan eztabaidagai izateari dagokionez, bat baitator Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua sortzen duen azaroaren 5eko 238/2007 Foru Dekretuaren 3.5 artikuluan ezarritakoarekin. Hau dio hitzez hitz artikulua horrek:

«Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluak eginkizun hauek ditu:

5. Kontsumitzaileak defendatzeko eta haiei informazioa emateko Nafarroako administrazio publikoek dituzten neurri, plan eta jarduteko proiektuak ezagutzea, horien inguruko proposamenak egin ahal izateko, eta arlo horri buruzko azterketa eta txosten interesgarriak ezagutzea».



Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 5eko 5/2018 Foru Legearen 19.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, Kontsumoaren Plan Estrategikoa argitaratu egin beharko litzateke (publizitate aktiboa) tramitazioa hasita dagoenean eta onartu ondoren, hauek adierazita: helburuak, jarduerak, bitartekoak eta betetzeko behar diren denborak; betetzeko ardura duten organoak, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko bide ematen duten adierazleak. Halaber, planaren betetze mailari buruzko informazioa eta plana egin, onetsi eta ebaluatzeko prozesuetan herritarren parte-hartzeak izandako emaitza argitaratu behar dira.

Plana egiteko prozesuan herritarrak parte hartzeari dagokionez, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legearen 14. artikulua honako hau ezartzen du: Nafarroako Gobernuaren onespena behar duen plan edo proiektu bat edo plangintza publikoko beste edozein elementu prestatu, aldatu edo berrikusi behar den guztietan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa behartuta dago, jendaurrean jartzeaz gainera, eztabaida prozesu bat edo, hala badagokio, kontsulta bat egitera nahitaez.

2. Kontsumitzaileek kontsumo harremanei eragiten dizkieten erabakiak hartzen dituzten erakunde publikoetan, organismo aholku-emaitzetan eta kontseiluetan parte hartzeari dagokionez, jada jasota dago foru legearen 34.1.a artikuluan.

6. artikulua Administrazioen arteko erantzunkidetasuna eta elkartasuna kontsumo jasangarriaren sustapenerako.

Alegazioak:

1. Bigarren apartatuan kontsumitzaileen osasunari buruzko aipamen bat sartzea proposatzen da, baita kontsumitzaileek elkarteen bidez parte hartzeko aukerari buruzkoa ere.

2. Hirugarren apartatuari dagokionez, proposatzen da kontsumitzaileen parte-hartzea haiek ordezkatzeko dituzten elkarteen bidez bideratzea.

Erantzuna:

1. Egokitzen da jo da kontsumitzaileen osasunari buruzko aipamena sartzea, eta, beraz, bigarren apartatuaren testuan sartzea onartzen da.

2. Kontsumitzaileek kontsumo jasangarriaren arloan parte hartzeari dagokionez, nabarmendu behar da aurreproiektuaren 28.2 artikulua ezartzen duela kontsumitzaileen ordezkaritza, parte-hartze eta kontsultarako eskubidea kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte edo erakundeek erabiliko dutela. Horrenbestez, ez da beharrezkoa ideia hori errepikatzea arauaren testuan zehar.



7. artikulua Autonomia erkidegoen arteko elkarlana.

Alegazioa:

1. Lehia libreari buruzko aipamena kentzea proposatu da, Estatuaren eskumeneko gai bat delako.

2. Halaber, bigarren apartatuaren amaieran esaldi hau sartzeko proposatzen da: «*autonomia erkidego bakoitzak bere lurraldean dituen eskumenak aintzat hartuta*».

Erantzuna:

1. Artikulu honek ez du arautzen lehiaren eskubidea, Estatuarekin eta beste autonomia erkidegoko batzuekin elkarlanean aritzeko akordioak baizik, jarduketak egiteko kontsumoaren arloan eta lehia librearen defentsari dagokionez, eta bat dator, erabat, NFKAFLren V. tituluaren –«*Administrazioen arteko harremanak*»– I. kapituluaren –«*Elkarlana, lankidetzeta eta koordinazioa*»– edukiarekin.

2. Bestalde, ez da beharrezkotzat jotzen bigarren apartatuaren amaieran sartzeko proposatutako aipamena, erakundeen arteko lankidetzeta eta elkarlanerako teknikak berez dakartelako eskumen propioak baliatzea eta beste administrazio batzuek egiten duten beren eskumenen egikaritze legitimoa errespetatzea.

8. artikulua Egoera juridikoak kontsumitzailearen alde interpretatzea eta haien oreka.

Alegazioa:

8. artikulua 1., 2., 4. eta 5. apartatuak kentzea proposatzen da, arrazoi hauek direla eta:

- 1. apartatua: Berdintasun printzipioa eta Kode Zibilaren 3. artikuluan kontratuak interpretatzeko ezarritako erregelak urratzen ditu.

- 2. apartatua: Kontsumitzailearen aldeko interpretazioa argitasun falta dagoenean baino ezin da egin.

- 4. apartatua: Lehia desleialaren arloan indarrean dagoen araudiak araututakoa errepikatzen du.

- 5. apartatua: Arauen arteko gatazka ordenamendu juridikoan dauden erregelen arabera ebatzi beharko da; beraz, arau autonomiko batek ezin du ezarri irizpide zehatz bat.

Erantzuna:

- 1. apartatua: Arauak kontsumitzailearen alde interpretatzea: interpretatzeko irizpide hau bat dator, erabat, Kode Zibilaren 3. artikulua edukiarekin, arauak beren espiritua eta xedea kontuan hartuta interpretatuko direla ezartzen baitu, eta, kontsumoari



buruzko arauen kasuan, espirtua eta xedea kontsumitzailearen babes da, hain zuzen ere. Edonola ere, lehenik eta behin, arauak hitzez-hitzezko esanguraren eta testuinguruaren arabera interpretatu behar direnez, argiak badira eta araua interpretatzeko zalantzarik ez badago, ez da aplikatu beharko kontsumitzailearen aldeko interpretazioaren irizpidea.

- 2. apartatua. Apartatuaren testuak jada esaten du kontsumitzaile edo erabiltzaileen aldeko interpretazioaren irizpidea interpretatzeko zalantzak edo desadostasunak daudenean baino ez dela aplikatuko, eta, logikoa denez, ez da halakorik gertatutako komunikazioa, eskaintza, publizitatea, merkataritza jardunbidea edo kontratu klausulak argiak badira. Ildo berean, KEDLOTBen 80.2 artikulua hau ezartzen du: «akzio indibidualak egiten direnean, klausula baten inguruko zalantzarik izanez gero, kontsumitzaileari mesede gehien egiten dion interpretazioa lehenetsiko da».

Bestalde, kontratueto klausulak kontsumitzailearen alde interpretatzeak ez du esan nahi Kode Zibilaren 1281. artikulutik 1289. artikulura bitartean kontratuak interpretatzeko ezarritako erregelak ez direnik aplikatuko, eta, erregela horiek aplikatu ondoren oraindik ere zalantza badago, “favor cosumitoris” printzipioa aplikatuko da.

- 4. apartatua. Apartatu honek kontsumo harremanetan, alderdien egoera juridikoen fede ona eta oreka zuzena sustatzeko agindua ezartzen du, eta agindu hori bat dator, erabat, KEDLOTBen eta Lehia Desleialaren urtarrilaren 10eko 3/1991 Legean ezarritako indarreko arau-esparruarekin.

- 5. apartatua. Arau aldekoenaren printzipioa KEBFLren 6.3 artikuluan dago jasota gaur egun, eta koherentea da kontsumitzailea babesteko araudiaren izaera babeslearekin. Aurrekoa ulertu behar da Estatuaren eta autonomia erkidegoen arlo honetako araudia Konstituzioak eta autonomia estatutuek ezarritako eskumen esparruan sartu behar dela eta Europar Batasunak kontsumitzaileen babesaren inguruan emandako erregelamenduak eta zuzentarauak errespetatu behar dutela kontuan hartuta.

9. artikulua Diskriminaziorik ezaren eta eskuragarritasun unibertsalaren printzipioak kontsumo harremanetan.

Alegazioak:

1. Artikuluaren bigarren apartatua aldatzea proposatzen da, lokalera sartzea eragozteko edo lokaletik alde egiteko eskatzeko aukera sartu behar baita, jokabide antisozialak edo jardueraren garapen normala eragozten dituzten jarduerak dituzten erabiltzaileei dagokienez.

2. Hirugarren apartatuari dagokionez, kentzea proposatzen da, alderdi hori araututa baitago Irigarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legean, zeina Irigarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legeak (aurrerantzean, IUFL) ordeztu baitu.



Erantzunak:

1. Lehen gaiari dagokionez, esan behar da oso zaila dela arau batean kontzeptu hori tipifikatu, deskribatu edo neurtzea, jokabide horretan sartzen ahal diren jokamolde ugari baitaude eta intentsitate ezberdina eta merkataritza jardueran eragin ezberdina izan baititezakete. Kasu horietan, zeinak ordena publikoaren arlokoak izan baitaitezke, zuhurtasunez jokatu behar da bezeroaren jokabideak merkataritzako establezimenduan eragindako egoera ebaluatzen denean, eta, ordena publikoaren arlokoa izatera pasatzen bada, delitu zantzuak badaude edo establezimenduak arazoari aurre egiteko duen gaitasuna gainditzen badu, establezimendua harremanetan jarri beharko da ordena publikoaren arloan eskumena duten agintariekin, merkataritzako jardueraren garapen normalean ordena onari eusteko.

Ildo beretik, 38. artikulua *«Erantzukizunaren adierazpenak»* ezartzen du kontsumitzaile edo erabiltzaileen erantzukizunaren adierazpenak direla honakoak, besteak beste:

d) Tratu adeitsua eta begirunezkoa ematea bezero gisa arreta ematen dietenei, tratu bera jasotzeko.

e) Kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa ondasun edo zerbitzuak kontratatzean jasotzen dituzten oharra eta ohartarazpenak aintzat hartzea.

f) Trabarik ez jartzea edo ez eragozte besterik kontsumitzaile edo erabiltzaile batzuek beren eskubideak erabil ditzaten, ez eta ondasun eta zerbitzuak erosi eta erabiltzeko haien erabaki eta egintzak ere.

2. Bigarren alegazioari dagokionez, nabarmendu behar da irisgarritasunaren funtsezko alderdi bat dela kontsumo ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko oinarritzko baldintzak, eta, beraz, egokia da aurreproiektuan ideia hori jasotzea, nahiz eta IUFLn araututako gaia izan (6. art.).

10. artikulua Oinarritzko eskubideak.

Alegazioak:

1. Proposatzen da artikulua KEDLOTBen 8. artikulua edukiaren arabera idaztea. Esaten dutenez, testu bategina arlo honetan oinarritzko legeria denez, aurreproiektua oinarritzko araua garatzera mugatu behar da.

2. Adierazten dute ez dutela ulertzen 1.b) apartatuan interes kolektiboari eta kontsumitzaile edo erabiltzaile kopuru zehaztugabe bati eragiten dioten egoerei ematen zaien garrantzi berezia.

3. Ez daude ados c) letran babes juridiko, administratibo eta tekniko eta jasandako kalte eta galeren egiazko konpentsazioa, ordaina eta ordainketa jasotzea elkartzearekin. Uste dute akats bat dela artikulua c) letran «halakorik bada» ñabardura sartzeko, onartutako oinarritzko eskubideak murriztea eragin dezakeela uste baitute. Azkenik, uste dute ez dela egokia babes juridiko, administratibo eta teknikoaz hitz egitea Estatutuan ez bada zehazten zer esan nahi duen babes horrek.



4. Artikuluaren d) letran ez da azaltzen zer den simetria informatiboa edo zer jotzen den merkatuaren orekatzat, eta ez dago inolako aipamenik manu horren jatorriaren inguruan: informaziorako, hezkuntzarako eta dibulgaziorako eskubidea.

5. Artikuluaren e) letra KEDLOTBn kontsultan entzunaldirako eskubidea izatea, zuzenean eragiten dieten xedapen orokorrak prestatzeko prozeduran parte hartzea eta, legez eraturako kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteen bidez, beren interesen ordezkari izatea direnak jasotzen dira. Uste dute elkarteek kontsumitzaileen interes orokorrak eta indibidualak ordezkatzeko dituztela (ez soilik orokorrak). Kendu egin beharko litzateke «orokorrak» hitza, testu bateginaren 8. artikuluan ezarritakoa urratzen baitu modu nabarmenean.

6. Beste erakunde batek 10. artikuluan hirugarren apartatua gehitzea proposatzen du, sustatzeko «vending» elementu, instalazio edo makina aurreratuak edo dauden makinetan modulu berriak, ondasunak eta zerbitzuak segurtasunez merkaturatzeko aukera ematen dutenak, ukitu gabe.

Erantzuna:

1. Ez da partekatzen aurreproiektuaren testua Estatuaren oinarritzko arauaren erreproduktzioa izan behar denik; bertan aitortutako eskubideak errespetatu behar ditu.

2. Bestalde, b) letrari dagokionez, agerikoa da badaudela kontsumitzaileen interes ekonomiko edo sozialei eragiten dieten kasu batzuk, garrantzi sozial edo eragin handiagoa dutenak interes kolektiboetan, ukitutako pertsonen kopurua edo inpaktu ekonomiko handiagoa delako.

3. Babes juridiko, administratibo eta tekniko eta kalte eta galeren egiazko konpentsazioa, ordaina eta ordainketa jasotzea apartatu bakarrean elkartzeari dagokionez, departamentu honek uste du lotura oso estua duten eskubideak direla eta, horregatik, zentzuzkoa dela apartatu berean sartzea. Kalteei eta galerei dagokienez amaieran «halakorik bada» oharra eransteak kalteak eta galerak daudenean izanen dela baino ez du esan nahi. Apartatu berean, babes juridiko, administratibo eta teknikoari buruzko aipamena KEDLOTBen 8. artikuluan f) letran jasotako eskubidearen isla baino ez da. Letra horrek ezartzen du kontsumitzaileak prozedura eraginkorren bidez babestuko direla. Apartatu honetan, kontsumitzaileari bere kexa, erreklamazio eta salaketei dagokienez ematen zaion arreta sartzeko da.

4. Simetria informatiboarekin eta merkatuaren orekarekin kontsumo harremanetan alderdien kokalekuak maila berean jartzea esan nahi da, enpresaburuak eta kontsumitzaileak informazio bera izan dezaten, harremanean desorekarik izan ez dadin.

5. Azkenik, onartu egin da alegazio hau eta aldatu egin da e) letraren idazkera, interesak besterik gabe aipatuta, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteei dagokien ordezkari indarrean dagoen legerian (KEDLOTB, eta Prozedura Zibilaren Legea, auzibidean) ezarritakoaren arabera gauzatzen dela ulertzen baita.



6. «Vending» makinei buruzko alegazioari dagokionez, lehenago esan den bezala, azpimarratu behar da arau-testu honetan ezin direla arautu ondasun eta zerbitzu guztien eta haien espezialitateen kontsumoari buruzko araudiaren eremu guzti-guztiak. Arau honek orokorra izan behar du ezinbestean. Gainera, salmenta automatikoa salmenta berezi gisa dago araututa Txikizkako Merkataritzaren 7/1996 Legean, salmenta bereziei buruzko III. tituluan (salmenta automatikoa, 49. artikulutik 52. artikulura). Horrenbestez, merkataritzari buruzko arauan landu behar da salmenta automatikoari dagokion erregulazioa.

11. artikulua. Eskubide sortu berriak.

Alegazioak:

1. Ez dira eskubide berriak artikuluko honen 1., 2., 3., 8. eta 9. apartatueta jasotakoak eta, horregatik, aurreproiektuaren testutik kentzea proposatzen da.

2. 2. apartatuari dagokionez, hondakinak murrizteari eta erabilera bakarreko plastikoak –adibidez produktua identifikatzeko etiketak– kentzeari buruzko testu bat sartzea proposatzen da. Halaber, proposamen bat egin da digitalizatzen ahal diren makina funtzionalak berrerabiltzeko, makinak txartartzea ekiditeko.

3. Ondasun ukiezinei buruzko informazio osoa eta ezagutza izateko eskubideari dagokionez (6. apartatua), proposatzen da bitarteko digitalak erabiltzea hondakinak prebenitzeko.

4. Kontsumo harremanetan segurtasuna eta pribatutasuna izateko eskubideari buruzko 7. apartatuan, QR kodeak sartzea proposatzen da.

Erantzuna:

1. Zentsu hertsian berriztat ezin badira jo ere, berriak dira Estatutu honetan esplizitatzeari dagokionez. Helburu pedagogikoa du, kontsumitzailea erosteta kontziente, arduratsu eta jasangarrira bideratzeko, baita ondasunen eta zerbitzuen kontsumoan teknologia berriak erabiltzera eta haien onurez baliatuz bideratzeko ere. Halaber, profesionala ekoizpen etiko eta iraunkorrera bideratu nahi da, eta kontsumitzaileari tratu zuzena eta duintasun pertsonalarekiko begirunetsua eskaintzera ere.

2. Hondakinei eta “vending” makinei buruzko proposamenei dagokienez, hondakinei buruzko edo salmenta automatikoari buruzko araudian arautu behar dira.

3. Artikuluaren 6. apartatuari buruzko proposamenak ez dauka loturarik haren edukiarekin.

4. QR kodeei buruzko proposamena ez da beharrezkoa 7. apartatuaren testuaren idazkera zabala baita.

I. kapituluan –«Oinarrizko eskubideak eta eskubide sortu berriak»– artikuluko berriak sartzeko proposamena.



Erabilera arrunt, ohiko edo orokorreko ondasunak.

Alegazioa:

Proposatzen dat artikulu berri bat sartzea Nafarroako administrazio publikoek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babestea lehenetsiko dutela onartzen duena eskubide horiek lotura zuzena dutenean erabilera arrunt, ohiko eta orokorreko ondasun edo zerbitzuekin.

Erantzuna:

Proposamena hasieran egin da eta «Babes bereziko kasuak» izenburua duen 3. artikulua azken apartatuan sartu da.

Kontsumitzaileentzako laguntza autozerbitzu establezimenduetan.

Alegazioa:

Administrazio publikoek sustatu behar dute merkatu operadoreek eta autozerbitzu establezimenduek eta zerbitzu automatizatuak emateko jarduerak laguntza bermatzen dietela erabakiak hartzeko eta gauzatzeko autonomiarik ez duten kontsumitzaileei.

Erantzuna:

Gai hau ekainaren 30eko 182/1997 Foru Dekretua indargabetu zenean eztabaidatu zen. Foru dekretu horrek jendaurreko salmentarako instalazioetan eskaintzen den automoziorako gasolina eta gasolioaren hornidura zerbitzuaren kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak arautzen zituen.

Eskaera ezin da onartu orduan azaldu ziren arrazoiengatik. Proposamena ez da beharrezkoa eta neurritz kanpoko da; establezimenduaren askatasuna eta lehia askea justifikaziorik gabe oztopatzen duen neurri bat da, autozerbitzu edo salmenta automatikoko negozio ereduekin alderatuta, praktikan bideraezin bihurtzen baititu halako negozioak. Eskakizun honek Zerbitzu jarduerak askatasunez eman eta burutzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen (aterki legea esaten zaio) 9.2 eta 11.2 artikuluetan ezarritakoa urratzen du, jarduera eskuratzeko eta hartan jarduteko eskakizun bat baita, interes orokorreko ezinbesteko arrazoi batek justifikatu gabe. Neurritz kanpoko eskakizun bat da.

Kontsumitzaileek kontsumo politiketan parte hartzeko duten eskubidea.

Alegazioa:

Kontsumitzaileei kontsumo politiketan parte hartzeko eskubidea aitortzen dien artikulu bat sartzea proposatzen da.

Erantzuna:



Gai hau dagoeneko aztertu da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluan duten parte hartzearen bidez. Kontseilu horren eginkizunak dira, besteak beste:

“1. Kontsumoaren arloan informazioa eta aholkua ematea.

2. Elkarrizketa, koordinazioa eta laguntza sustatzea kontsumitzaile elkarteen eta enpresa erakundeen artean, kontsumoaren arloan ukitutako gizarte sektoreen arteko eztabaidagunea izatea eta sustapena egitea erabakiak har daitezten kontsumitzaile elkarte, enpresa erakunde eta gai horietan eskumena duten Nafarroako administrazio publikoen artean.

3. Aginduzko txostenak egitea kontsumoaren arloko xedapen orokorrei buruz ematen diren proiektuen gainean. Ondorio horietarako, xedapenak ez dira kontsumoaren arloko xedapen orokortzat hartuko baldin eta soilik arautzen badituzte eskumena duten administrazio publikoen antolakuntzako alderdiak eta kontsumitzaileen eskubideei zuzenean eragiten ez badiete.

4. Kontsumitzaileen defentsarako ekintzak, programak, antolamendu neurriak, azterketak eta ikerketa lanak sustatzea eta administrazio publiko eskudunei proposatzea.

5. Kontsumitzaileak defendatzeko eta haiei informazioa emateko Nafarroako administrazio publikoek dituzten neurri, plan eta jarduteko proiektuak ezagutzea, horien inguruko proposamenak egin ahal izateko, eta arlo horri buruzko azterketa eta txosten interesgarriak ezagutzea».

Parte-hartze hori Kontsumoaren Plan Estrategikoa egiteko prozesuan esku hartuta ere gauzatuko litzateke. Izan ere, plan horren tramitazioan Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluan ordezkaturik dauden ukitutako sektore sozialak entzun beharko lirateke. Aurreko guztia Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legean ezarritakoari kalterik egin gabe.

12. artikulua Ondasunak eta zerbitzuak osasunerako eta segurtasunerako arriskurik gabe izateko eskubidea.

Alegazioak:

1. Lehenengo apartatuta kentzea proposatzen da, Estatuaren eskumen eksklusiboa (KEDLOTBen III. liburuaren bidez egikaritutakoa) dela argudiatuta.

2. Beste alegazio batek artikulua 1. apartatuan beste paragrafo bat sartzea proposatzen du, patogenoak kutsatzeko arriskua saihesteko, “vending” elementuek, merkaturatze kanalek eta makinek produktua ukitu gabe eskuratzeko eta ordaintzeko aukera eman behar dutela gehitzeko.



Bigarren apartatuari dagokionez, idatzera aldatzea proposatzen dute, eta baliabide digitalak sartzea, aurreko xede berarekin, ulertzen denez. Apartatuaren amaieran, hondakinak murrizteari buruzko aipamen bat sartu nahi dute.

Erantzunak:

1. III. liburuak gai zehatzago bat arautzen du: ondasun edo zerbitzu akastunen ondoriozko erantzukizun zibila. Edonola ere, aurreproiektuaren testuak, merkatuan jarritako ondasun eta zerbitzuek kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasunerako ez eta segurtasunerako ez dutela inolako arriskurik ekarriko dioenean, Europar Batasuneko nahiz Estatuko araudian aurreikusitakoarekin bat ulertu behar dela ezartzen du, eta, beraz, ezin da ulertu, inola ere, aurreproiektuak Estatuaren eskumenak inbaditzen dituenik.

2. Antzeko beste alegazio bati erantzuteko adierazi den bezala, lege hau orokorra da, ez sektoriala, eta ezin ditu arautu kontsumoaren alderdi sektorialak, beste arau batzuen xede baitira. Hala, salmenta automatikoa salmenta berezi gisa dago araututa Txikizkako Merkataritzaren 7/1996 Legean, salmenta bereziei buruzko III. tituluan (salmenta automatikoa, 49. artikulutik 52. artikulura). Gainera, ez dauka zentzurik lege orokor batean pandemiari eta ukimen bidezko kutsatzei lotutako oraingo egoerak eragindako arrisku zehatzak jasotzea. Hondakinei dagokienez, arau honen xede ez den beste arau-eremu bati dagokio, eta, gainera, proposatutako testuak ez dauka inolako loturarik bigarren apartatuaren esanahiarekin.

13. artikulua Ondasunen eta zerbitzuen arriskuei buruzko informazioarako eskubide orokorra.

Alegazioa:

Artikulua kendu egin behar da Estatuaren eskumen eskusiboa baita (KEDLOTB, Kode Zibila, Kontsumitzaileari elikagaien inguruan emandako informazioari buruzko urriaren 25eko 1169/2011 EB Erregelamendua –aurrerantzean, KEIE– eta 126/2015 Errege Dekretua, azken kontsumitzaileari nahiz kolektibitateei saltzeko ontziratatu gabe aurkeztutako, saltokian bertan erosleak horrela eskatua ontziratutako eta txikizkako merkataritzaren titularrek ontziratutako elikagaien informazioari buruzkoa).

Erantzuna

Artikuluaren testuak, ondasun eta zerbitzu horiek atxikiak dituzten eta berehalakoan atzeman ezin diren arriskuei buruz, kontsumitzaileak alde aurretiko informazioa duen eskubidea arautzen du, modu orokorrean, eta hori NFEBHLOren 56.1.d) artikulua dela bide Nafarroako Foru Komunitateak gai honetan duen eskumen eskusiboan sartzan da eta ez ditu urratzen Estatuaren eskumenak.

14. artikulua Produktuen eta zerbitzuen benetakotasuna

Alegazioa:



Artikulu honek konkurrentzia jarduera arautzen du eta Estatuaren eskumen eksklusiboa da, zeina Lehia Desleialaren Legean araututa baitago; beraz, kentzea proposatzen da.

Erantzuna:

Kontsumitzaileei zalantza sor diezazkieketen osaketaz, aurkezpenaz, sortzeaz edo jatorriaz nahasgarriak izan daitezkeen ezaugarriak dituzten ondasun eta zerbitzuak direla eta, Administrazioak merkaturatu ez daitezten neurriak hartzea Nafarroari NFEBHLOren 56.1.d) artikulu horretan emandako eskumenaren barruan sartzen da, bete-betean.

15. artikulua Gardentasun informatiboa:

Alegazioak:

1. Bigarren apartatua kentzea. Merkataritzako harremanak jasotzen ditu, eta Estatutua kontsumo harremanei buruzkoa da.

2. Bigarren apartatuan “vending” elementuek, merkaturatze kanalek eta makinek produktuari buruzko informazioa QR kodeen bidez edo beste bitarteko telematiko baten bidez eman behar dutela dioen aipamen bat sartzea proposatzen da.

Erantzunak:

1. Aintzat hartu da lehen alegazioa eta kendu egin da bigarren apartatuaren amaiera, «*baldin eta gardentasun horrek inolako ondorio kaltegarririk sortzen ez badu egiazko lehian...*» dioen lekutik amaieraraino, Estatuaren eskumen eksklusiboa baita.

2. Bigarren alegazioak ez du zentzurik apartatu honetan, gardentasun informatiboari buruzkoa baita, eta ez bezeroari eman beharreko informazioaren formatuari edo bitartekoari buruzkoa. Edonola ere, “vending” makinei dagokionez, berriro aipatu behar da lehenago emandako argudioa, hau da, merkataritzako legerian sartzen direla, salmenta berezi gisa.



16. artikulua Aurrekontua.

Alegazioa:

Proposatzen da «*salbu eta ageriko akatsa bada eta aurrekontuaren hartzaileak fede txarrez jokatu badu*» esamoldea kentzea, alderdi hori aurrekontua egin duenak alegatu beharko bailuke, kontsumitzaileak erreklamaziorik egiten badu.

Erantzuna:

Dagoen moduan utzi behar da, bestela aurrekontuaren interpretazio hertsia ekarriko lukeelako, eta kontsumitzaileari aukera emanen liokeelako edozein akats erreklamatzeko, agerikoa eta zakarra izanda ere. Egia da eskubideaz abusatzeko aukera jasota dagoela Kode Zibilean (7. art.), baina egia da ere legeak, kasu honetan aurreproiektuak, nolabaiteko pedagogia egin behar duela.

17. artikulua Prezioari eta kontraprestazioari buruzko informazioa, eta ordaintzeko moduari edo bideari buruzkoa.

Alegazioa:

Artikulu honek baztertu egin ditu kontsumitzaileekin egiten den kontratazioan ohikoak diren bi gai:

- Eman edo kontsumitu ez diren zerbitzuengatik ordaintzeko debekua.
- Zerga, zama edo kargei buruzko informaziorik eza

Erantzuna:

Lehenengo debekua Kode Zibilean araututako betebeharrak eta kontratuen oinarriko betebeharrak ondoak da, baina ez du baztertu ondasuna eman edo zerbitzua gauzatu baino lehen ordaintzeko aukera. Proposamena ez dauden zerbitzuak edo kontzeptuak fakturatzeari buruz ari bada, badago jasota 75.b.2 artikuluan, arau-hauste administratibo gisa.

Prezioari dagokionez, Departamentu honek uste du zuzen idatzita dagoela artikulua eta prezio osoari –zergak barne– buruzko aurretiazko informazioa bermatzen dela kontratazioa egin aurretik, testu bateginaren 60. artikuluan ezarritakoarekin bat. Bestalde, aurreproiektuaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, merkaturatutako ondasun eta zerbitzuen funtsezko ezaugarriei buruzko informazio guztia argia eta zalantzarik gabekoa izan behar da.

18. artikulua Egindako kontratazioaren ziurtagiria.

Alegazioak:

1. Proposatzen dute apartatu bat gehitzea, non, kontsumitzaileen informaziorako eskubidea bermatzeko eta arrazoi horren ondorioz erabiltzaileek erreklamazio eta kexa



ugari aurkezten dituztela aintzat hartuta, kontratazioa telefonoz egin bada, enpresa behartuko baita kontsumitzaileari kontratazioaren grabazioa ematera.

2. Vending makinek eta merkaturatze automatikorako beste bide batzuek frogagiri edo ticket digital bat emateko behar den softwarea eta funtzionaltasun teknikoak izan behar dituzte, betiere artikulua a) eta b) letretan ezarritako baldintzak beteta.

Erantzuna:

1. Urrunetik egindako kontratazioa KEDLOTBen 98. artikuluan dago araututa, eta Nafarroak ezin du berrikuntzarik ezarri gai horretan.

Dena den, grabazioak eskuratzeko aukera Datuak Babesteko Espainiako Agentziak baliozkotu du, zeinak R/00623/2019 Ebazpenaren bidez, datu pertsonaltzat jo baitu ahotsa. Beraz, erabiltzaileak legitimatuak daude bide horretatik kontratuaren grabazioa eskuratzeko aukera erreklamatzeko.

2. Behin eta berriz esan denez, salmenta automatikorako makinak merkataritzako araudian daude araututa.

19. artikulua Gordailuaren gordekina.

Alegazioak:

1. Gordailuaren gordekina izan ezean, ezin da eskatu, hirugarren apartatuan hala esan arren, ondasunaren titulartasuna frogatzeko; nahikoa izanen litzateke gauzakiaren gainean erreklamatzeko eskubidea egiaztatzea. Titulartasuna egiaztatzeko eskatzea gordailuaren kontratuaren araudiaren kontrakoa da.

2. Gordailuan adierazten den produktuaren itzulera eskatzeko preskripzio epea ez da izan behar aplikatu beharreko arau zibilean edo merkataritzako arauan ezarritakoa baino laburragoa.

Erantzuna:

1. Onartu egin da alegazioa, eta, beraz, kontsumitzaileak gordailuaren gordekinik ez badu, aukera izanen du ondasunaren gaineko eskubidea zuzenbidearen arabera baliozkoa den edozein bitarteko erabilita egiaztatzeko. Gainera, komenigarritzat jo da gehitzea enpresaburuak edo profesionalak produktuari dagokion preskripzio epean zehar gorde behar duela gordekinaren kopia.

2. Onartu egin da bigarren alegazioa ere, eta lehen apartatuaren testuan legeria zibilean edo merkataritzakoan ezarritako epeei buruzko aipamen bat erantsiko da.



20. artikulua. Kontratuaren klausulak.

Alegazioa:

1. Artikulua kentzea proposatzen da, Kontratazioaren Baldintza Orokorrei buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legean (aurrerantzean, KBOL) araututako Estatuaren eskumeneko gaia dela argudiatuta.

2. Beste alegazio batek bigarren apartatua kentzea proposatzen du, uste baitu kontsumitzailea nahastea eragin dezakeela. Izan ere, kontsumitzaileak erreklamatzeko eskubidea du, eta ez klausula abusuzkoak kendu daitezela eskatzeko. Horretarako prozedura bat dago KBOLen. Aldi berean, apartatu horren ordez, KEBFLren oraingo 12.1 artikulua erabiltzeko beste bat jartzea proposatzen dute.

Erantzuna:

1. 20. artikuluan araututakoak erabat errespetatzen du KEDLOTBn eta KBOLen ezarritako oinarriko legeria eta Nafarroak kontsumoari eta zuzenbide zibilari dagokienez dituen eskumenen (NFEBHLOren 48. 1 eta 56.1.d artikulua) barruan sartzen da; ez du ezer berririk sartzen eta ez du abusuzko klausula berririk sartzen; beraz, aurreproiektuaren testuak bete egiten du kontratuen betebeharren oinarriak ezartzen dituen erregulazioa, zeina Konstituzioaren 149.1.8 artikulua Estatuaren eskumen eskusibotzat jotzen duen gaitako bat baita.

2. Artikuluaren bigarren apartatua indarrean dagoen legeria zibil, prozesal eta administratiboaren esparruan ulertu behar da. Horren arabera, kontsumitzaileek kontratu baten klausula bat deuseztatzeko eskatzen ahal diete auzitegiei; bukarazte akzioak baliatzen ahal dituzte, horretarako legitimatuta dauden entitate edo erakunde bidez, edo erakunde horiei eska diezaiekete egiteko, eta salaketak jartzen ahal dituzte kontratuetan abusuzko klausulak erabiltzen direnean.

21. artikulua Kalte-ordainak eta kaltearen ordain-ematea.

Alegazioa:

1. Artikulua kentzea proposatzen da, Kode Zibilean eta KEDLOTBen 135. artikuluan eta ondorengoetan araututako Estatuaren eskumen eskusiboa baita.

2. Berrito jarri da zalantzan «en su caso» (gaztelaniazko testuan; euskarazkoan ez dago) esamoldea erabiltzea kalte eta galeren kasua, uste baitute ez diola ezer eransten artikuluari edo, gutxienez, ez dela kontsumitzailearen aldekoa.

3. Ez da ulertzen kalte eta galeren eta kalte moralen arteko bereiztea, jurisprudenzia ez bereiztera jotzen baitu. Ez da ulertzen ere zergatik kalte moralak organo judizialean eskatu behar diren, gatazkak konpontzeko beste bitarteko batzuk baitaude, ezta zergatik izan behar diren kalteak soilik kontratu-erantzukizun batek eragindakoak.



Erantzuna:

1. 21. artikuluan araututakoak erabat errespetatzen du KEDLOTBn eta Kode Zibilean ezarritako oinarritzko legeria eta Nafarroak kontsumoari eta zuzenbide zibilarri dagokienez dituen eskumenen (NFEBHLOren 48. 1 eta 56.1.d artikulua) barruan sartzen da eta ez du ezer berririk sartzen, alderantziz baizik. Testuak dioen bezala, kontsumoaren arloan indarra duen legeria da erreferentzia. Beraz, aurreproiektuaren testuak bete egiten du kontratuen betebeharren oinarriak ezartzen dituen erregulazioa, zeina Konstituzioaren 149.1.8 artikulua Estatuaren eskumen eskusibotzat jotzen duen gaitako bat baita.

2. Lehenago adierazi den bezala, «en su caso» esamoldeak ebidentzia bat agerrarazi nahi du, hau da, kalteen eta galeren ordaina, ordainketa eta kalte-ordaina jasotzeko eskubideak berekin dakarrela kalteak eta galerak benetan gertatu izana.

3. Onartu egin da kalte moralei buruzko alegazioa eta testutik kendu egiten da bereizketa eta organo judizialean erreklamatzeari buruzko aipamena, bereizketa horrek ez duela zentzurik uste baita. Kontratuz kanpoko erantzukizunari dagokionez, uste dugu ez dela arau honetan jaso behar, kontsumo harremanek zuzenean eragindako kalteak arautzera mugatu behar baita. Kontratuz kanpoko erantzukizunak arau-esparru argia du Kode Zibilaren 1902 artikuluan eta Foru Berriaren 507 Legean.

24. artikulua Kontsumo arduratsua eta jasangarria.

Alegazioa:

Artikulua beste era batera idaztea proposatzen da eta, amaieran, kontsumitzaile edo erabiltzaileen prestakuntza eta hezkuntzaren xede gisa kontsumo arduratsu eta jasangarriaren jarraibideekin bat jardutea dela dioen esaldiaren ordean, «eta eskubide horiek baliatzeko bideak» esaldia jartzea.

Erantzuna:

Artikuluaren izenburua eta xedea kontuan hartuta, egokiagozat jotzen da aurreproiektuan jasotako idazkera.

25. artikulua Hezkuntza eta prestakuntza arloak.

Alegazioak:

Artikuluaren testua beste era batera idaztea proposatzen dute, eta, aurreproiektuan ezarritakotik abiatuta, hauek gehitzea proposatzen da:

1. Bigarren apartatuaren amaieran, esaldi hau gehitzea: «, eta, horretarako, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarrekin laguntza izaten ahalko dute».

2. Hirugarren apartatua laugarrena izanen da, eta, proposatutakoa gehituta, honela geratuko litzateke: «Botere publikoek kontsumoaren arloan informazio, hezkuntza, prestakuntza, ikuskerak eta kontrol lanak –Administrazio Publikoan edo



kontsumitzaileen erakundeetan– egiten dituzten pertsona guztien etengabeko prestakuntza sustatuko dute»

3. Hirugarren apartatu berri bat, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrerean trebatzeko eta eskubide eta betebeharreriek baliatzeko bideetan trebatzeko prestakuntzari buruzkoa, esaldi hau berrituz: «, eta, horretarako, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarrekin laguntza izaten ahalko dute».

4. Bosgarren apartatu berria, Nafarroarako berariazko programazioa duten komunikabide publikoak eta dirulaguntza publikoak hartzen dituzten titulartasun pribatuko komunikabideak behartzeko kontsumitzaile eta erabiltzaileen prestakuntza eta hezkuntzarako saioak sartzera, non parte hartzeko aukera emanen baitaie kontsumitzaileen elkarrekin eta interesa izan dezaketen talde edo sektoreei.

5. Seigarren apartatu berria, zeinak ezarriko baitu Administrazioak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarrekin laguntza sustatuko duela haien eskubideak babesteko tresna eraginkorra den heinean.

Erantzunak:

1. Testuan kontsumitzaileen elkarrekin laguntzari buruzko erreferentziak egitea ez da beharrezkoa, eta errepikakorrak dira, kontuan hartuta aurreproiektuaren 29.2 artikuluan badagoela jasota kontsumoaren arloko eskumena duten administrazio publikoek kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarrekin laguntza sortzea sustatuko dutela eta haien parte-hartzea ziurtatuko dutela beren eskubide edo interesetan zuzeneko nahiz zeharkako eragina duten bizitza publikoaren esparru guztietan. Edonola ere, arlo honetan gastua eragiten duen edozein «lankidetzak» kasu bakoitzean aplikatu behar den araudia –kontratuena edo dirulaguntzena– bete beharko du.

2. Hirugarren apartatuaren inguruan proposatutako aldaketa ez da beharrezkoa, aurreproiektuan jasotako edukia nahiko zabala baita «pertsona guztien» adierazpidearekin.

3. Proposatutako hirugarren apartatuak aurrekoa errepikatzen duela uste dugu.

4. KEDLOTBk 17.2 artikuluan jasotzen du neurri bera Estatuaren titulartasun publikoko bitartekoen inguruan. Nafarroan ez dago titulartasun autonomikoko komunikabiderik, eta titulartasun pribatukoek komunikazioaren arloan eskumena duen departamentuaren dirulaguntzak jasotzen dituzte. Dirulaguntza horiek zerbitzu edo interes publikoko zenbait eduki sartzera behartzen ditu laguntzen hartzaileak. Gure ustez, hori da bide zuzena, eta ez foru lege baten bidez komunikabide pribatuak eduki horiek sartzera behartzea.

5. Proposatutako seigarren apartatu berriak ez dauka loturarik artikuluen edukiarekin, eta aurreproiektuaren 29.2 artikuluen edukia errepikatzen du.



26. artikulua Ikerketa eta dibulgazio jarduerak.

Alegazioa:

Berriro proposatzen dute artikulua lehen apartatuaren amaieran ohar bat sartzea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarten laguntza izateko aukerarekin.

Erantzuna:

Alegazio honi dagokionez, berriro eman behar da aurreko artikulua inguruan emandako lehen erantzuna, eta gehitu behar da administrazio publikoak erabakiko duela bitarteko propioekin edo, halakorik ez badu, kanpoko bitartekoekin eginen duen, azterlan, txosten edo proiektuen xedea eta haien konplexutasuna edo berezitasuna aintzat hartuta. Kanpoko bitartekoekin eginez gero, kontratu publikoen legeria bete beharko du.

27. artikulua Ahalduntze finantzarioa eta digitala.

Alegazioa:

Bigarren apartatua kentzea proposatzen da, uste baitute ez dela kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutu baten berezko eremua, ezta Nafarroako Kontsumoaren Administrazioaren eginkizuna ere.

Erantzuna:

Departamentu honek uste du bigarren apartatuaren edukia botere publikoek kontsumitzaileen prestakuntza eta hezkuntza sustatzeko duten erantzukizunaren barruan sartzen dela, bereziki tresna eta baliabide finantzarioen arloko prestakuntza eta hezkuntza sustatzekoan, kobentzionalen ordezkotresnen ezagutza bultzatuta.

28. artikulua Eskubidea erabiltzea.

Alegazioa:

28.2 artikuluan Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluari buruzko aipamena kentzea proposatzen da, gizarte eragileen ordezkari eta kontsulta organoa baita, eta ez kontsumitzaileena. Izan ere, kontsumitzaileen ordezkari eta kontsumitzaileen elkarten bitartez bideratu behar da.

Ildo horretan, KEBFLren oraingo 20.1 artikulua edukia mantentzea proposatzen da.

Erantzuna:

Ez gatoz bat azaldutako irizpidearekin, Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluan kontsumitzaileen elkarteak baitaude ordezkari, eta, kontseiluan duten parte-hartzearen bidez, gai garrantzitsuetan esku hartzen baitute, besteak beste kontsumoaren arloan ematen diren arauak onartu aurretik egin beharreko derrigorrezko



txostenean. Hala ere, 28.2 artikulua beste era batera idazten ahal da, kontsumitzaileen elkarteen ordezkariak kontsumitzaileek zuzenean edo Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluan duten parte-hartzearen bidez baliatzea jasotzeko. Horrenbestez, aldatu ginen da 28.2 artikulua eta esandakoaren arabera idatziko da.

29. artikulua Kontsumoaren arloko elkarteak aitortzea eta sustatzea.

Alegazioa:

Lehenengo apartatuan, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak kontsumitzaile edo erabiltzaileen interesak babesteko ordezkariak eta parte-hartzerako bide «egokia» direla gehitzeko proposatzen da.

Erantzuna:

«Egokia» hitzak ez dio ezer esanguratsurik eransten aurreproiektuaren testuari, jada jasotzen baitu kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak direla kontsumitzaile edo erabiltzaileen interesak babesteko ordezkariak eta parte-hartzerako bidea.

32. artikulua Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteen eta erakundearen erregistroa.

Alegazioa:

Proposatzen da artikulua bat sartzea arau honetan eskatutako betekizunak betetzen ez dituzten eta erregistroan inskribatuta ez dauden kontsumitzaileen elkarteei «kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkartea» edo «kontsumitzaileen elkartea» terminoak erabiltzea debekatzeko. Horri dagokionez, gogorarazten dute debeku hori badagoela KEDLOTBen 25. artikuluan.

Erantzuna:

Alegazioan esaten den bezala, debeku hori KEDLOTBen 25. artikuluan dago eta testu batekin hori oinarritzeko araua da, azken xedapenetako lehenean esaten den bezala. Arau horrek aplikatu beharreko araudi autonomikoa betetzen ez duten elkarteei ere ezartzen die debekua, eta, beraz, ez da beharrezkoa aurreproiektuaren testuan ere jasotzea.

Bestalde, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 8. artikulua «Izena»- hau ezartzen du:

«1. Elkarteen izenera ezin izanen dira bildu elkartearen nortasunari edo elkarte horren mota nahiz izaerari begira errakuntza edo nahasmendua sor dezaketen kontzeptu edo adierazmoldeak, bereziki, beste pertsona juridiko batzuei dagozkien hitzak, kontzeptuak edo ikurrak, akronimoak eta antzekoak, pertsona juridiko horiek elkartze-izaera izan edo ez».

Hala, uste dugu Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari atxikitako Elkarteen Erregistroaren eskumena dela arauak



betetzen direla kontrolatzea «kontsumitzaileen elkarteak» terminoa arlo horretako araudi autonomikoa bete gabe erabiltzen duten erakundeen kasuan. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarteen Erregistroan inskribatuta ez dauden erakundeen kasuan, berriz, kontsumoaren arloan eskumena duen zerbitzuari edo zuzendaritza nagusiari dagokio arlo horretako araudia betetzen dela kontrolatzea.

34. artikulua. Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen elkarte edo erakundeen eskubideak.

Alegazioak:

1. Proposatzen da d) letran «laguntzea» jarri ordez, «parte hartzea» jartzea.
2. Herri-onurakotzat jotzeko eskubidea aipatzen duen h) letra berria eranstea, gaur egun KEBFLk jasota duenarekin bat.
3. Doako laguntza juridikoa izateko eskubideari buruzko i) letra gehitzea, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean ezarritako eran.

Erantzunak:

1. «Laguntzea» hitza bat dator arbitraje elkargoek arbitroak proposatzen dituztenean elkarteei dagokien zereginarekin.
2. Elkarteek herri-onurakotzat jotzeko duten eskubidea Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Legearen VI. kapituluan dago aitortuta, eta, beraz, ez da beharrezkotzat jotzen aipamen hori jasotzea. Gainera, ez da kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteen berariazko eskubide bat.
3. Aurreko kasuan bezala, beste lege-arau batean jasotako eskubide bat da, kasu honetan, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen bigarren xedapen gehigarrian, eta erabilera arrunt, ohiko eta orokorreko ondasunekin zerkusia duten auziei lotuta dago. Hori dela eta, ez da beharrezkotzat jotzen aipatzea.

37. artikulua Garrantzi sozialaren zentzua.

Alegazioa:

Uste dute artikulua ez dela beharrezkoa eta zailtasunak eragin ditzakeela operadore juridikoetan araua aplikatzerakoan, baita kontsumitzaileengan ere, eskubideak baliatzen dituztenean.



Erantzuna:

Artikuluaren testua egokitzen da kontsumitzaileek, eskubideak dituzten subjektuak izateaz gainera, kontsumo harremanetan betebeharrak eta erantzukizunak dituztela gogorarazten duen neurrian, eta kontsumo arduratsua, jasangarria eta etikoa lortzeko kontzientzia soziala sortu nahi du haiengan.

39. artikulua Gatazkak konpontzeko bestelako sistemak sustatzea.

Alegazioa:

Bigarren apartatu bat gehitzea proposatzen da, kontsumoaren arloan eskumenak dituzten administrazio publikoen aurrean salaketak eta erreklamazioak izapidetzeko administrazio-prozedura erregelamendu bidez arautuko dela ezartzeko.

Erantzuna:

Salaketen izapidetzea behar beste araututa dago aurreproiektuaren 23.4 artikuluan, non kontsumoaren arloko salaketa bat aurkeztu ondoren egin daitezkeen jarduketak administratiboak azaltzen baitira.

Erreklamazioen izapidetzeari dagokionez, aurreproiektuaren 23.3 artikulua ez du arautzen prozedura oso bat; erreklamazioaren kontzeptua definitzera eta, erreklamazioa aurkeztu aurretik, enpresaburuari edo profesionalari erreklamazioa aurkeztea betekizun bakar gisa ezartzera mugatzen da.

Kontsumoaren arloko gatazkak ebazteko judizioz kanpoko mekanismoak bitartekaritza eta arbitrajea dira, batez ere. Azken hori arautzea Estatuaren eskumena da. Bitartekaritzari dagokionez, Auzi zibil eta merkataritzazkoetako bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legearen (aurrerantzean, AZMBL) edukia ikusita eta kontsumoaren arloko bitartekaritzaren berezitasuna aintzat hartuta, uste dugu kontsumoaren arloko bitartekaritzaren gaia berariazko foru lege batean arautu behar dela, beste autonomia erkidego batzuetan egin den bezala. Foru lege horrek kontsumo harreman eta erreklamazioen ondoriozko berezitasunen arabera egokitu behar du gatazkak konpontzeko mekanismo hori, eta kontsumoaren arloko auzien konponbide alternatiboa lortzeko erakundearen ziurtagiria eskuratzeko aukera eman behar du (Kontsumo Ministerioak ematen du ziurtagiri hori).

40. artikulua Printzipio komunak.

Alegazioak:

1. Lehen apartatua beste era batera idaztea proposatzen dute, argiagoa delakoan.

2. Bigarren apartatua erantsi dute, legeak aginduta, bitartekaritza eta/edo arbitrajea erabiltzea derrigorrezkoa dela ezartzeko. Dirudienez, hala gertatuko da gai zibil batzuetan.



3. Hirugarren apartatua kentzea eta 43. artikuluan sartzea proposatzen dute.

Erantzuna:

1. Idazkera aldaketak ez du ezer berririk eransten; hala ere, testua argiagoa izan dadin, bi aldaketa txiki sartu dira: batetik, gaztelaniaz, «resolución extrajudicial de conflictos» esamoldearen ordez, «sistemas de resolución extrajudicial de conflictos» jarriko da (euskaraz badago jasota horrela), eta, bestetik, «beste batzuk» gehitu da sektore espezifikoetarako legerian aurreikusita dauden gatazkak auzibidetik kanpo konpontzeko tresna lotesleei dagokienez, («gatazkak auzibidetik kanpo konpontzeko beste tresna lotesle batzuk»), kontsumoaren arloko bitartekaritza eta arbitrajetik bereizteko.

2. Sektore espezifikoetarako gatazkak konpontzeko mekanismo horiei buruzko aipamena zuzena da aurreproiektuan jasota dagoen bezala.

3. Artikulu honetan fede ona aipatzea zuzena dela uste dugu, kontsumo arloko gatazken bestelako konponbiderako mekanismo guztiei dagozkien printzipioez ari garelako, eta ez soilik kontsumoko bitartekaritzaren printzipioez (aurreproiektuaren 43. artikulua).

41. artikulua Lankidetzeta Europar Batasunaren esparruan.

Alegazioa:

Bigarren apartatua gehitzea proposatzen da, mugaz haraindiko erreklamazioak kudeatzeko, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek aurkeztzen dituzten salaketak eta erreklamazioak izapidetzeko prozedura erregelamendu bidez garatuko dela zehazteko.

Erantzuna:

Mugaz haraindiko erreklamazioak izapidetzeko prozedura ezin dugu guk zehaztu, ezarrita baitago erreklamazio horiek arautzen dituen Europako esparruan, hau da, Kontsumoaren arloko auziak linean ebazteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 1eko 534/2013 Erregelamenduan eta Kontsumoaren arloko auzien ebazpen alternatiboari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 2013/11/EB Zuzentarauan.

42. artikulua Ezaugarriak.

Alegazioa:

Bitartekariari dagokionez, ezaugarri hau gehitzea proposatzen da: «bitartekaritzako profesionala».

Erantzuna

Bitartekari jarduteko eskakizunak edo baldintzak AZMBLn daude jasota, 11. artikuluan, zehazki.



43. artikulua Kontsumoko bitartekaritzaren nolakotasun bereziak.

Alegazioak:

Artikulua beste era batera idaztea proposatzen da:

1. Lehen apartatuan, neutraltasunaren eta fede onaren printzipioak sartzea.
2. Bigarren apartatuan, bitartekariak bitartekaritza hasteko eta horretan atzera egiteko duten askatasuna gehitzea, eta, atzera eginez gero, gatazkak konpontzeko beste edozein bide erabiltzen ahalko dela jasotzea.
3. Hirugarren apartatuaren beste idazkera proposatu da, eta laugarren apartatua gehitzea, inpartzialtasun eta neutraltasun printzipioak definitzeko, bereizita.
4. Konfidentzialtasunaren printzipioaren erregulazioa proposatzen dute (AZMBLren 9. artikulua transkripzioa da).
5. Seigarren apartatuan, aurreproiektuaren 40.3 artikulua edukia sartzea proposatzen dute.
6. Seigarren apartatua zazpigarrena izanen litzateke.

Erantzunak:

1. Onartu egin da lehen apartatuan fede onaren eta neutraltasunaren printzipioak sartzea.
2. Bitartekariaren bitartekaritza hasteko eta horretan atzera egiteko askatasunak ez dauka zentzurik bitartekaritza instituzional batean, zerbitzu publiko gisa ematen baita. Bitartekaria zerbitzua ematen duen erakundeak (Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzua) izendatzen du, haren inpartzialtasuna zalantzan jartzen duten inguruabarrak daudenean salbu. Kasu horretan, bitartekariak nahitaez utzi beharko du bitartekaritza, hirugarren apartatuak amaieran jasota dagen bezala. Alderdiak dira prozedura askatasunez onartzen dutenak, eta atzera egin dezakete ere. Gatazkak konpontzeko beste edozein bide erabiltzeko aukerari buruzko erreferentzia sobera dago, bistakoa delako.
3. Aurreproiektuaren hirugarren apartatuak apartatu berean jasotzen ditu inpartzialtasunaren eta neutraltasunaren printzipioak, baina «neutraltasuna» terminoa aipatu gabe. Hori dela eta, aldatu egin da apartatuaren idazkera, lehenengo apartatuan jaso den neutraltasunaren printzipioa berariaz aipatzeko.
4. Fede onaren printzipioaren edukiaren azalpena jasota dago aurreproiektuaren 40.3 artikuluan, gatazkak auzibidetik kanpo ebazteko sistema guztiek bete behar dituzten printzipioetan, eta egokiago ikusten da kokapen sistematiko hori, auzibidetik kanpoko sistema guztiak hartzen baititu, eta ez soilik bitartekaritza.



5. Konfidentziasunaren printzipioari buruzko bosgarren apartatuari dagokionez, ez da beharrezkotzat jotzen AZMBLren 9. artikulua edukia jasotzea, testuaren idazkera egokia dela uste baita.

44. artikulua Bitartekaritza bultzatu eta sustatzea.

Alegazioa:

Bigarren apartatua gehitzea proposatzen da, non Nafarroako Gobernuak kontsumoaren kontratuetan bitartekaritza erabiltzeko klausula bat sartzea sustatu behar duela jasoko baita.

Erantzuna:

Departamentu honen ustez, aurreproiektuaren testuan bitartekaritza sustatzeari dagokionez jasotakoa nahikoa da. Proposatutakoa kontsumoaren arloko bitartekaritza arautzeko egin daitekeen foru legean sar daiteke.

45. artikulua. Bitartekaritzan lortutako akordioen izaera.

Alegazioak:

1. Lehen apartatua aldatzea eta akordioak «*alderdiek beraiek ezarritako modu eta baldintzetan*» izanen direla lotesleak dioten erreferentzia kentzea. Halaber, bitartekaritzan lortutako akordioen kontrako deuseztasun-akzioari buruzko aipamena gehitzea proposatzen da.

2. Horrez gainera, hirugarren apartatua beste era batera idaztea proposatzen da, bitartekaritza akordioa titulu betearazle gisa konfiguratzeko aukera jasotzeko, AZMBLren edukiarekin bat.

Erantzunak:

1. Uste dugu nahikoa dela aurreproiektuaren testuan jasotako erregulazioa, eta ez da beharrezkoa AZMBLren edukia sartzea (23.4 eta 25. artikulua).

2. Berrito ere esan behar da etorkizunean onar daitekeen bitartekaritzari buruzko foru lege batean arautzen ahal direla gai hauek zehatzago, aurreproiektu honek erregulazio orokorragoa ezarri behar baitu.

59. artikulua Laginak hartzea.

Alegazioa:

Proposatzen da artikulua kentzea, kontrolen erregulazioa Europar Batasunaren eskumena baita. Izan ere, Elikagai eta pentsuei buruzko legeria eta animalien osasunari eta ongizateari, landare osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko arauak betetzen direla bermatzeko egindako kontrolak eta bestelako jarduera ofizialak arautzen dituen martxoaren 15eko 625/2017 Erregelamenduan dago araututa.



Erantzuna:

Erregelamendu horrek aplikazio eremu mugatua du, 1.2 artikuluan ezarrita dagoena eta haren izenburuan jasota dagoena, eta ez ditu bere barnean hartzen kontsumo ikuskatzailetzaren esku-hartzearen menpe dauden produktu guztiak. Hala, adibidez, 625/2017 Erregelamenduan ez dira sartzen industriako produktuak.

Bestalde, esan behar da zuzenean aplikatu beharreko Europako erregelamendu bat egoteak ez dakarrela estatu kideek arautzeko eskumenik ez izatea, erregelamendua osatzeko edo garatzeko behar diren arauak emateko eskumena baitute. Ildo horretan, ez da alegatu eta ez da ikusten kontraesanik martxoaren 15eko 625/2017 Erregelamenduak eta aurreproiektuaren testuak araututakoaren artean.

60. artikulua Analisisiak.

Aurreko alegazioa ikusita, eta martxoaren 15eko 625/2017 Erregelamenduaren edukia eta Estatuan indarrean dagoen arau-esparrua aztertu ondoren, egokitzat jo da bigarren apartatua beste era batera idaztea. Izan ere, apartatu horretan ezartzen da analisisiak laborategi ofizialetan edo laborategi pribatu akreditatuetan egingen direla, eta eduki zabalagoa sartzea proposatzen da, arlo horretako arau-esparrua erabat betetzen dela bermatzeko. Horrenbestez, proba horiek kontrol ofiziala egiteko eskumena duten laborategietan egin beharko dira.

64. artikulua Neurriak hartzeko kasuak.

Alegazioa:

Artikulua kentzea proposatzen da, osasuna arriskuan dagoenean kautelazko neurriak hartzeko aukera ezartzen baitu, eta arlo hori osasun agintarien eskumena da.

Erantzuna:

Eskumen konkurrente bat da, bestelako arazorik eragiten ez duena, beste arlo batzuetan gertatzen den bezala. Normalean, kasu horietan, kautelazko neurriak osasun agintariak hartuko lituzke, baina ez dago sobera kontsumoaren arloko agintariak halako neurriak hartzeko aukera izatea ere. Gainera, legeak ez du ezartzen horretako eragozpenik.

66. artikulua Kautelazko neurrien motak.

Alegazioa:

Artikuluaren b) letra kentzea proposatzen da, txeke zuria baita administrazioak, aldez aurreko baldintzak ezarrita, legetan ezarrita ez dauden neurriak eskatzeko aukera izan dezan, eta hori legeak egitea da, *de facto*.



Erantzuna:

Letra horretan jasotako neurriak ez dira txeke zuri bat operadore ekonomikoentzat, administrazioak ondasun edo zerbitzu bat merkaturatzeko ezartzen dituen neurriak indarrean dagoen legeria bete beharko baitute beti eta neurria eragin duten kontsumitzaileen interesetarako dauden arriskuak edo kalteak kentzera bideratu beharko dira.

Izan ere, Produktuen Segurtasun Orokorrari buruzko abenduaren 26ko 1801/2003 Errege Dekretuak (aurrerantzean, PSOED), 10. artikuluan («Produktuak seguruak izateko eginbehar orokorra bermatzeko, erreakzionatzeko neurri administratiboak»), antzekoa ezartzen du:

«Errege dekretu honetan araututako eginbehar orokorrak betetzen ez badira, administrazio organo eskudunek osasuna eta segurtasuna berrezartzeko edo bermatzeko behar diren neurriak hartzen ahalko dituzte, berehala edo aurreko artikuluan aipatutako errekerimenduak egin ondoren. Eta erabateko eraginkortasuna lortzeko, laguntza neurri hauetako bat edo batzuk edo bestelako batzuk hartzen ahalko dituzte:

b) Seguruak ez diren produktu guztien kasuan, merkaturatzea debekatzen ahalko da eta beharrezkoak diren neurri osagarriak ezartzen ahalko dira debekua betetzen dela bermatzeko. Produktuaren arriskua aldatetak eginda, arretaz ibilita edo merkaturatu aurreko neurriak hartuta saihesten ahal bada, administrazioaren debekuak zein diren adierazi beharko du. Zehazki, adierazten ahalko da produktuan beharrezkoak diren oharrak jartzeko, dituen arriskuak zehaztuta, argi eta erraz ulertzeko moduan idatzita, gutxienez gaztelaniaz. Ohar horiek betetzen badira, produktua merkaturatzen ahalko da, eta ekoizleak kanpoko elementu bereizgarriren bat jarri beharko du. Debekua kentzeko, produktuaren erabilera edo destinoa mugatzen edo baldintzatzen ahalko da».

75. artikulua Arau-hauste arinak.

Alegazioak:

Proposatzen da 75.A) artikulua 3. apartatua kentzea proposatzen da, uste baita, nahitaez bete beharreko arauak hautsi gabe ere, kontsumitzaile osasun edo segurtasunerako arriskua edo egiazko kaltea ekar dezaketen egintzak edo ez-egiteak betetzea arau-haustetzat jotzea segurtasun juridikoaren eta tipikotasunaren printzipioen kontrakoa dela. Izan ere, printzipio horiek ezartzen du jokabide zigorgarriek behar bezala mugatuta egon behar dutela, administratuak informazio zehatza izan dezan une oro.

Erantzuna:

75. A) 3 artikuluan jasotako arau-haustea argia da: «*osasun edo segurtasunerako arriskua edo egiazko kaltea ekar dezaketen egintzak edo ez-egiteak betetzea, kasuan kasuko jarduerari datxezki zentzuzko arretarik gabe eginak badira*».

Gogoratu behar da PSOEDk hau ezartzen duela 3.4 artikuluan:



«4. Produktu batek aplikatu behar zaizkion arau-xedapen guztiak betetzeak edo aurreko apartatuetan jasotako elementuetako bat betetzeak ez du eragotziko administrazio organo eskudunek xedapen honetan ezarritako neurrietako bat hartzea, produktuak derrigorrezkoak diren kontrol administratiboak gainditu baditu ere, baldin eta, hala ere, produktua segurua ez bada. Halaber, ekoizleak eta banatzaileak ez ditu salbuetsiko haien eginbeharrak betetzetik».

Hau da, segurua ez den produktuaren kontzeptua arauak ez betetzetik eta enpresen eta profesionalen kontsumitzaileari produktuak eskaintzeko duten betebeharratik (PSOEDren arabera) baino harago doa, eta, beraz, eginbehar hau ez betetzea arau-haustetzat jo daiteke. Horrez gainera, aintzat hartzen da erruduntasunaren printzipioa jardueraren datxezkion zentzuzko arreta neurriak aipatuta. Hala ere, printzipioz, neurri horiek aplikatu beharreko araudian egonen dira jasota.

80. artikulua Zehapenak murriztea .

Alegazioa:

Proposatzen da artikulua kentzea, uste baita 80. artikuluan jasotakoa arlo honetako oinarrizko legeriaren (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen –aurrerantzean, PEL– 85. artikulua) aurkakoa dela, legeria horrek bi kontzeptu bereizten baititu (borondatezko ordainketa eta erantzukizuna aitortzea). Aukera ematen du erantzukizuna aitortu gabe ordaintzeko eta aurrerago administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aukera zabalik uzten du. Foru legeak ez du horretarako aukerarik uzten.

Erantzuna:

Egia da aurreproiektuaren testuak inplizituki ezartzen duela ordainketa egiteak erantzukizuna aitortzea eta administrazio-bidean edozein akzio edo errekurtsio jartzeari uko egitea edo jarritakoetan atzera egitea ekarriko duela. Baina horrek ez du baztertzen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Ildo horretan, NFKAFLren 121. artikulua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izapidetutako zehapen prozeduren arloko zehapenen murrizketa arautzen du, eta hirugarren apartatuan ezartzen du erantzukizun-aitorpenak eta borondatezko ordainketak berekin ekarriko dutela zehapenaren aurka inolako ekintza edo errekurtsio administratibo aurkezteari uko egitea edo halakoetan atzera egitea. Hala, zehapena ordaintzeak ere badakar administrazio-errekurtso bat jartzeari uko egitea, baina kasu bietako batean –borondatezko ordainketa eta erantzukizun-aitorpena– ere ez dakar zehatuari Konstituzioaren 24. artikuluan jasotako benetako babes judizialerako eskubidea baliatzeko aukera kentzea, administrazio-errekurtsoa jartzeari uko egin badio ere, administrazioarekiko auzi-demanda jartzeko aukera izanen baitu.

Aurreproiektuak erantsitako berritasuna ez da, beraz, NFKAFLn aipatutako administrazio-errekurtsoari uko egitea, baizik eta erantzukizun-aitorpena ez dela esplizitatu behar idazki batean orain arte bezala. Aitzitik, inplizituzat jotzen da borondatezko ordainketa egiten denean, eta orain arte isunaren bi murrizketa zirenak % 50eko murrizketa bakarrean metatu dira. Murrizketa hori aktibatzeko, nahikoa da



ordainketa egitea, eta, hala, murriztu egiten da espedientearen zama burokratikoa, benetako babes judizialerako eskubidea murriztu gabe.

Aurrekoa gorabehera, gogoratu behar da PELeK ezartzen duela izapide gehigarriak edo PELen ezarritakoaz bestelako batzuk sartzen ahalko direla, lege bidez eta modu arrazoituan, prozeduraren berezko xedek lortzeko efikaz, neurrizko eta beharrezkoak badira. Halaber, ezartzen du erregelamenduz ezartzen ahalko direla prozeduraren zenbait berezitasun, hauei buruzkoak: organo eskudunak, gaiagatik zehazki dagokion prozeduraren epeak, hasteko eta amaitzeko moduak, argitaratzeko modua eta eskatu beharreko txostenak.

Horrenbestez, erregelamenduz ezartzen ahal badira prozeduraren berezitasunak, eta, zehazki, prozeduraren amaierari dagokiona, argi dago aurreproiektu honek berezitasun bat ezartzen ahal duela prozedura amaitzeko, erantzukizun-aitorpen inplizitua eragiten duen ordainketaren bidez. Edonola ere, foru lege baten bidez ezartzen ahal dira izapide gehigarriak edo PELen aurreikusitakoez bestelako batzuk, kasu honetan prozedura sinplifikatzeko eta haren zama burokratikoa murrizteko, aurretiazko ordainketari lotutako deskontu bakarra ezarrita.

84. artikulua Subjektu erantzuleak.

Alegazioa:

1. Artikuluaren bigarren apartatua aldatzea proposatzen da, uste baita KEIEn xedatutakoaren kontrakoa dela. Izan ere, KEIEk ezartzen du ontzian identifikatutako elikadura operadorea dela subjektu erantzulea, eta, beraz, banatzailea ez bada identifikatzen, ontzian daturen bat agertzen bada ere, ezin da izan erantzulea ez baitu kontrolatzen ekoizpen prozesua eta etiketatzea, eta ez baitago erantzukizuna bere gain hartzeko goieran.

2. Halaber, 7. apartatua aldatzea proposatzen da, uste baita pertsona fisikoen erantzukizuna, gehienez, erantzukizun hori arriskua ezagutu eta onartu behar zutenei deribatzen oso larriak diren arau-hausteetara mugatu behar dela. Bestela, gelditu eginen litzateke jardura ekonomikoa.

Erantzuna:

1. Bigarren apartatua ez da, inola ere, KEIEren edukiaren kontrakoa. Izan ere, EB Erregelamendu horren 8.1 artikulua hau ezartzen du:

«1. Elikagaiei buruzko informazioaren ardura duen elikagaien enpresako operadorea izanen da elikagaia merkaturatzeko erabiltzen den izena edo sozietate-izenari dagokion operadorea, edo, Batasunean finkatuta ez badago, elikagaia Europar Batasuneko merkatura inportatu duena».

Lehenik eta behin, esan behar da KEIEk kontsumitzaileari nahitaez eman behar zaioen elikagaiei buruzko informazioa arautzen duela, eta aurreproiektuaren 84.2 artikulua aplikazio eremua zabalagoa dela, industriako produktuak ere hartzen



baititu. Eta, gainera, operadore ekonomikoen erantzukizuna arautzen du, bai elikagaiei buruzko informazioari dagokionez, bai elikagaien kalitateari eta osaerari dagokienez.

Edonola ere, KEIEren 8.1 artikuluan jasotako erregelaren arabera, erantzulea da produktua merkaturatzeko erabiltzen den izena edo sozietate-izena dagokion operadorea, hau da, etiketaren datuetan produktuaren erantzule gisa agertzen dena, eta ideia hori bat dator aurreproiektuaren 84.2 artikuluan ezarritakoarekin, etiketan ageri den pertsona edo sozietate-izen egiten baitu erantzule, eta, jakina, argi identifikatuta egon beharko du.

Illo horretan, “marka zuriak” deitutakoekin –operadore batek fabrikatu edo ontziratatu egiten ditu eta beste batek bere markarekin merkaturatzen ditu– lotutako arau-haustea produktua bere markarekin merkaturatzen duten markastei egozten ahal zaizkie, eta hala egin ohi da, produktuaren ontziratzaileari edo fabrikatzaileari dagokion erantzukizuna baztertu gabe.

2. Enpresa ardura karguak betetzen dituzten pertsona fisikoei edo produktuak egin eta kontrolatzen dituzten teknikari arduradunei zehapenak ezartzeko aukerari dagokionez, uste dugu ez dela beharrezkoa arau-haustearen larritasuna bereiztea erantzuleei zehapena ezartzeko. Egia bada ere zentzuzkoagoa dela manu hau arau-hauste astun edo oso astunetarako erabiltzea, merkataritzako sozietatea desagertzen denean erabil daiteke ere, betiere pertsona erantzule fisikoak identifikatuta badaude.

Xedapen gehigarri bakarra.

Alegazioa:

Uste da ez dela beharrezkoa Institutua sortzea, ez baitago justifikatuta. Ez du babes handiagoa bermatuko, baina gastu gehiago eragingen du. Ez da ulertzen zergatik ez dagoen dirulaguntzarik kontsumitzaileen elkarteentzat, eta zergatik dagoen dirua Institutuarentzat.

Erantzuna:

Konstituzioaren 51. artikulua ezartzen du botere publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa bermatuko dutela, eta, prozedura eragingarrien bidez, haien segurtasuna, osasuna eta interes ekonomiko legitimoak babestuko dituztela.

Konstituzioaren 38. artikulua, berriz, enpresa-askatasuna aitortzen da merkatu-ekonomiaren eremuan, eta ezartzen du botere publikoek askatasun horren egikaritzea bermatu behar dutela.

Lehia funtsezko elementua da merkatu-ekonomia modernoan aurrerakuntzarako. Lehia bizkortzeak hobetzen du baliabideen esleipena eta faboratzen ditu merkatuaren indar dinamikoak, halako moduan non efizientzia ekonomikoa sendotu eta ondasunen eta zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaileen ongizatea areagotzen baita.



Europar Batasunaren eremuan, kontsumitzaileen defentsarako eskumenen eta barne merkatuaren funtzionamenduaren arteko lotura zenbait arautan ageri da. Batetik, Europar Batasunaren eta Kontseiluaren urriaren 25eko 2011/83/EB Zuzentarauaren 3. eta 4. oharra aipa ditzakegu. Zuzentaru hori kontsumitzaileen eskubideei buruzkoa da, eta esaten du Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 169. artikulua 1. apartatuaren a) letrak ezartzen duela Europar Batasunak kontsumitzaileen babes maila altua lortzen lagunduko duela, 114. artikuluekin bat hartzen dituen neurrien bidez, eta, EBFTren 26. artikulua 2. apartatuaren arabera, barne merkatuak barne mugarik gabeko espazio bat izan behar duela, non bermatuta egonen baitira salgaien eta zerbitzuen zirkulazio askea eta kokatzeko askatasuna.

Nafarroak eskumen eskusiboa du barne merkataritzari eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari dagokienez, prezioen politika orokorra eta lehiaren defentsarako legeria aintzat hartuta.

Kontsumitzailearen defentsaren arloko eskumen eskusiboen ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateak Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzua sortu zuen. Gaur egun, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren barruan dago, eta kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko eskumenak egikaritzen ditu Foru Komunitatearen eremuan.

Lehia defendatzeko eskumenei dagokienez, Konstituzio Auzitegiaren 1999ko azaroaren 11ko epaitik eratorritzen dira. Epai horrek esplizituki aitortzen du autonomia erkidegoen eskumen betearazlea barne merkataritzaren arloan, bakoitzak bere lurraldean aplikatzeko lehia defendatzeko arauak, merkatuetako lehia askearen gainean ondorio murriztaileak dituzten edo izan ditzaketen jokabideei dagokienez. Epai hori Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legean moldatu zen. Lege horretan, exekuzio eskumen horiek egikaritzeko mekanismoak ezarri ziren, baita arlo honetan espedienteak Estatuko erakundeekin banatzeko lotura puntuak ere.

Aurrekoa dela bide, 2014an eskuratu ziren exekuzio eskumenak eta Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuari esleitu zitzaizkion. Zerbitzuaren zuzendaria Nafarroako Lehiaren zuzendaria da.

Antolaketako efizientzia dela eta, kontsumitzaileen defentsan ari diren organoen independentzia ezartzen duten aginduak kontuan hartuta, zeinak Batzordearen gomendioetan eta ECN+ zuzentaruaren (duela gutxi txertatu da Espainiako ordenamendu juridikoan) jasota baitaude, proposatzen da eskumen biak modu efizientean eta efikazean hartuko dituen erakunde bat sortzea, Europar Batasunak arlo bietan emandako aginduei aurre egiteko behar diren baliabideekin. Eta gai biak uztartu nahi dira lotura estua daukatelako kontsumitzaileen ongizatearen gainean dituzten ondorioengatik, eta hala babes gehiago ematen zaie.